

Basa gurina



Basauriko Euskarabila Lehiaketa

Basa gurina

Jon Aiastui
Olatz Caminos
Arkaitz Errazkin
Xabier Etxeberria
Iskandar Hamawy
Jon Kerejeta
Koldo Larrea
Janire Lopez
Daniel Martirena
Joseba Molina
Alvaro Rabelli
Rafa Ugalde
Mitzelko Uranga
Joseba Zubizarreta

Edorta Jimenezen *Basa gurina* ipuina



Izenburua: Basa gurina
Bildumaren zuzendaria: Edorta Jimenez

Azalaren eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

Argitaratzea:

Txalaparta argitaletxea e.m.
Nabaz-Bides karrika 1-2
78. posta kutxa
31300 Tafalla
NAFARROA
Tfnoa. 948 703934
Faxa 948 704072
txalaparta@txalaparta.com
<http://www.txalaparta.com>

Txalapartaren lehenengo argitaraldia

Tafalla, 2006ko abendua
Copyright
© Txalaparta
© Euskarabila Elkarte

Diseinu grafikoa

Nabarrera argitalpen kudeaketa

Inprimaketa

Graficas Lizarra

I.S.B.N. 10

84-8136-477-0

I.S.B.N. 13

978-84-8136-477-4

Lege gordailua

NA. 3015-06



Aurkibidea

Edorta Jimenez	
<i>Basa gurina</i>	15
Jon Aiastui	
<i>Ozeanoan Arregi kapitainarekin</i>	33
<i>Ekainak 12 batean</i>	43
Olatz Caminos	
<i>Saudade</i>	57
Arkaitz Errazkin	
<i>Hogei urte</i>	65
Xabier Etxeberria	
<i>Breaking the wall</i>	73
Iskandar Hamawy	
<i>Geisha</i>	85
Jon Kerejeta	
<i>Ispilua</i>	95
Koldo Larrea	
<i>Ikusi-makusi</i>	103
Janire Lopez	
<i>Arkadiako metamorfosiak</i>	113
Daniel Martirena	
<i>Irudi lausoak</i>	123
<i>Gure txoko mutura bilduz</i>	131
Joseba Molina	
<i>Tabakoa eta ura</i>	137
Alvaro Rabelli	
<i>Euskara teknikaria, aurretik zein atzetik</i>	149
<i>Neska lizun baten lau urtaroak</i>	159
<i>Triangelu ekilateroa</i>	175
Rafa Ugalde	
<i>Berriro deituko dizut</i>	185
Mitxelko Uranga	
<i>Frustrazioa</i>	201
Joseba Zubizarreta	
<i>Gunfiaren mugetaraino</i>	209

Sarrera

1996an sortu genuen Basaurin Euskarabila Euskara Elkarte eta urte berean jarri genuen martxan ipuin erotikoen lehiaketa. Harrezkero 10 urte pasa dira eta bai elkarteak herrian baita lehiaketak euskal letren eta erotismoaren munduan bere lekutxoan egin dute.

10 urte hauetan 11 edizio izan ditu lehiaketak eta bi liburutan jaso da emaitza. 2001ean lehen sei edizioak biltzen zituen *Bero hezeak* liburua argitaratu zuen Txalapartak eta gozotik bidelagun izan dugu argitaletxe hau. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiogu gure proiektuan sinestu eta bera sendotzen laguntzeagatik.

Oraingoan azken bost edizioetako fruitua aurkeztera gatoz. Bertan biltzen dira, aurrekoan bezala, sarituak izan direnak eta saririk jaso ez arren merezi zuten zenbait.

Hau da, beraz, Euskarabila elkarteak 10. urteurrenean bere buruari eta irakurle orori egiten dion oparia. Ospa ezazue gurekin batera urteurrena irakurriz eta gozatuz.

Euskarabila Euskara Elkarte

2002

Epaimahaia: Miren Agur Meabe, Unai Elorriaga, Pako Aristi

Ez zen lehenengo saririk eman eta bigarren sari bi eman ziren.

2. sariak	Ispilua Saudade	Jon Kerejeta Olatz Caminos
Basaurikoa	Euskara teknikaria, aurretik zein atzetik	Alvaro Rabelli

2003

Epaimahaia: Miren Agur Meabe, Ixiar Rozas, Julen Gabiria

1. saria	Berriro deituko dizut	Rafa Ugalde
2. saria	Gure txoko mutura bilduz	Daniel Martirena
Basaurikoa	Neska lizun baten lau urtaroak	Alvaro Rabelli

2004

Epaimahaia: Miren Agur Meabe, Sonia Gonzalez, Edorta Jimenez

Bigarren sariaren irabazlea Basaurikoa zenez eta saritzeko moduko besterik ez zegoenez hirugarren sari bat eman zen.

1. saria	Geisha	Iskandar Hamawy
2. saria	Triangelu ekilateroa	Alvaro Rabelli
3. saria	Ozeanoan Arregi kapitainarekin	Jon Aiausti

2005

Epaimahaia: Eider Rodriguez, Lutxo Egia, Edorta Jimenez

Basauriko onenaren saria eman gabe geratu zen eta honen ordezkari bat eman zen.

- | | | |
|----------|-------------------|-------------------|
| 1. saria | Breaking the wall | Xabier Etxeberria |
| 2. saria | Tabakoa eta ura | Joseba Molina |
| 3. saria | Irudi lausoak | Daniel Martirena |

2006

Epaimahaia: Eider Rodriguez, Lutxo Egia, Igor Estankona

Basauriko onenaren saria ez zen eman.

- | | | |
|----------|-------------------------|--------------------|
| 1. saria | Gunfiaren mugetaraino | Joseba Zubizarreta |
| 2. saria | Arkadiako metamorfosiak | Janire Lopez |

EUSKARABILA IPUIN EROTIKOEN LEHIAKETA

Oinarriak

1.- Lehiaketa honetan 1990ean edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte.

2.- Lan guztiek argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute.

3.- Lanek ipuin erotikoak izan beharko dute eta DIN A-4 orritan makinaz tarte bikoitzean idatzita aurkeztu beharko dira edo ordenagailuz 2500 karaktere hutsuneak barne. Lanen luzera bi eta hamar orrialde artekoa izan beharko da.

4.- Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bat soilik. Egilearen datuak (izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea, eta lanaren lema) kartazal itxi batean sartuko dira eta kartazal horren azalean lanean jarri den lema bera jarriko da. Posta elektronikoz bidalitako lanen kasuan, ipuina fitxategi batean bidaliko da «ipuina» izenarekin eta egilearen datuak «egilea» izeneko beste fitxategi batean.

5.- Lan orijinala, hiru kopia, eta egilearen datuak dituen kartazal beste kartazal handiago batean sartuta, honako helbide honetara bidali beharko da:

EUSKARABILA IPUIN EROTIKOEN LEHIAKETA
Euskarabila Elkartea, 146 p.k.
48970 BASAURI-BIZKAIA
euskarabila@topagunea.com

6.- Hiru sari emango dira: lehena, bigarrena eta Basauriko onena.

7.- Sari ematea irabazleak bertan direlarik egingo da. Non eta noiz izango den aurrez iragarriko da.

8.- Lan saridunak Euskarabila elkartearen eta Txalaparta argitaletxearen esku geratuko dira eta osorik zein zatika argitaratzeko aukera izango dute, beti ere egilea nor den garbi adieraziz.

9.- Euskarabila elkarteak oinarri hauetan edozein aldaketa egiteko aukera izango du, beti ere publikoki adieraziz.

BASA GURINA

Egunkariak zekarren berria. Atxilotua esnea kalean saltzeagatik. Maiteri deitu nion. Eta orain zerez egingo dugu gurina?

Zatoz, eta ikusiko dugu.

Ikusi? Itsua banintz ere irakurri ahal izango nuke. Haren larruazalean. Hatz muturrez. Nire desioaren mapa. Beraren gorputza.

Baina zer diot hatz muturrez irakurri. Hatz muturrez larruazalean nire desioen mapa irakurtzeaz gainera dastaketa egiten nuen. Gurinarena. Maiteren gurinarena. Kauguen zotz.

Ezpainak ditu Maitek guriak. Zelan esan. Haragi-haragizkoak. Kolorez ostera morerantz lerratuak. Bilo beltzez inguratuak. Ahoaz ukitzean gurin meheenaren iturbegi bihurtzen dira. Maiteren ezpainak.

Nire mihiari automatismoen programa abiarazten zaio ezpainok nire ezpainetan sentitzean. Burua galtzen

dudala esan nahi dut. Galdu, ahoa alu barru-barruan sartu gura izaten dudalako eta, hala, ahoa han barrurago eta barrurago, listua haren hezetasunaz bustitzen zaidalako. Edo nire listuak haren ezpainak hezeago pararazten dituelako, beharbada. Bietara ez ote den nago, isuri berean nahasten baitira nire listura eta haren guritasuna. Eta badiot, burua galtzen dut, guriago eta guriago haren ezpainak, ezpainotako tolesturetan egiten du mihiak. Mino-tauro eroturik labirintoaren erdigunera iritsi nahirik legez. Gurin huts den guritasun hezearen iturriaren xerka. Mihia haren haragietan barrurago eta ezpainak haren ezpainetan gorago, xerka eta xerka, erotuago. Ipurtzuloan abiatuak ezpainetan beti gorago eta gorago, hordiago. Eta ezpainotan norberaren ezpainez igurtziz, luze labainduz, haren haragi hamaika tolesduretan biderkatua nire barru-barruko listuaz gozotuz, den-dena umelaraziz, ezpainetan ezpainez kosk egiteko aginduari itsuago eta itsuago erantzunez, haren ezpainak eta azpiezpainak eta hondar-etzpainak banan-banan ahoan sartuz eta ahoaren luzeaz luze-luze txupatuz. Eta aldi berean mihia aluan barrurago doa. Dantzan. Eta orduan eta burua dantzan galduago, horra hor klitoriaren miraria. Habia eta txoria!

Mihiaren gaineko ildo luzeaz laztantzean habia –klitoriaren inguruko miraria– askatu egiten da txoria –klitoria– eta amore emanda legez dantzatzen da. Gogor eta gorri, eta aldi berean laxo. Maiteren klitoria. Gorritua, eta aldi berean bustia. Klitoria. Maiterena. Guria. Habia eta txoria. Maiteren klitoria, alu-ahoko gingila.

Halakoetan hurrengo etorri ohi zaion isuria pixa ez dela jakingo ez banu, ahoan horixe egiten didala esango nuke. Pixa. Uharka.

Baina orainaldira pasatu naiz. Eta ez dago orainaldirik. Maite eta bion artean. Gurinik ez dugula esateko mo-

duko bat da. Orainaldirik ez dagoela esatea. Horixe. Aka-
bo dela. Gurea.

Zelan moldatuko gara?, galde egin nion atean. Sartu,
erantzun zidan.

Sujetadore barik, kamiseta azpian titiburuak xut iga-
rri nizkion. Jeans estuetako goiko botoia lotu barik zeu-
kan eta, komunetik etorri berria ote zen otu zitzaidan.

Aupa, esan nion sartzean egongelan ikusi nuenari.

Zelia, esan zidan Maitek.

Oraintxe joateko izan naiz, esan zuen Zeliak.

Atea itxi zuen. Zeliak. Irtetean.

Taoren maitasun teknikak hobetzen ari izan zirela
esan zidan, botoi hura lotzen zuen aldi berean. Maitek.
Klitorian egiten niona ez ei zuen nahikoa. Maitek. Urte-
berriko kantua etorri zitzaidan gogora.

*Urte barri-barri, / txarri belarri, / dakienak ez dakienari;
/ intxaurtxo bi / hiru gaztaina / Mari montaña / Nik ez dakit
eta... niri!*

Maitek kantatu zidan behin. Aldaera horrexekin;
«dakienak ez dakienari», kantu zaharreko «daukanak ez
daukanari» haren orde. Barrabilak laztantzen zizkidan ar-
tean –intxaurtxo bi!– ea beste hark gaztaina izena merezi
zuen galdetu zidan.

Gaztaina? Gaztainez gurina egin ahal da, ala?, eran-
tzun nion, biloen artean ezpainetako haragi iluna bilatzen
niolarik.

Eta jango zenituzke hiru gaztaina aldi berean?, Mai-
tek fantasia horixe zeukan; nik bera eta beste birekin egi-
ten nuela.

Gurinago egiten zitzaizkion habiaren ingurukoak hala esatean. Haragiak. Ezpainak, azpiezpainak, ezpain-hondarrak.

Zein konplexua den Maiterena. Zenbat tolesdura, zenbat zimur eta hantura; g, k, u, ... big-bang puntuak.

Urteak beharko nituen kokapen zehatzak, bakoitzaren gaitasun atomikoa, abiarazteko teknikak, g, k, u, ... big-bang guneen fisika ikasteko.

Zeliaren teknikak ez du parerik, Tao hutsa!; halaxe esan zidan.

Egia bide zen. Zeliarena. Maiteren begietan zebilen dirdira berriki plazeraren ur handienetan igerian ibilitakoarena zen.

Elektrifikatu egiten dit klitoria, elektrifikatu!

Hara, Tao elektrikoa! Klitoria duenari klitoria duenak irakatsi ahal dio. Maitek berak kantuan esana. Zehatzago, klitoria maiz edo trebe erabilia duenak irakatsi ahal dio klitoria bakanetan baino ez edo bestela baldar erabilia duenari. Erosen Taoren formula da. Zientifikoa ere badena. Besteok, klitoririk bakook esan nahi da, ahaleginak, hurbilketak, entseguak, hala holako esperimentuak, frogatxoak egitera kondenaturik bizi gara. Eta beti frakasatuaren itzala gainean guk. Klitori bakook. Halaxe zioetan berak. Klitori bakook!

Hor!, horrelaxe!, segi!, lasai!, ekin!, ez!, halakoxe aginduak ematen zizkidan. Maitek. Klitoriaren inguruan, klitoriari buruz, klitoriaren gainean, halaxe ibiltzen nintzelarik.

Noiz edo noiz orgasmoren bat nabaritzen nion.

Baina berak esana zidana.

Emakumeen orgasmoak hobe ez zenbatzea, ahaztu hori, kendu burutik.

Bera zen jostaria. Ni, jostailua.

Esne saltzailea atxilotuta, eta Zeliaren tanga sofaren gainean. Maiteri jeans praktika estuek ipurdi mamiak mar-doago ageri arazten zizkioten. Hanpatu egin zitzaidan. Taimainaz luzatu barik. Bere laburrean. Zakila. Bolumenaren formularen arabera hanpatu ere. Hots, luzeraz laburtxo baina bero-bero dagoenean, lodieraz lodiago egiten zait; luzeraz luzeago zertan egin barik, horregatik. Berotasun bera, bolumen berbera; beraz, laburragoa baina askoz lodiago. Formula zientifikoa hau ere. Eta Taoista. Zakilaren bero-hanturarena.

Halaxe esaten zidan Maitek; zein lodi orain! Lodi eta guzti, ahora berak.

Esku bateko ahurraz intxaurtxoak laztantzen zizkidan, laztan biribiletan, intxaurtxoak biribilak ote ez ote, horixe jakin guran legez. Atsegin hartuz. Eta atsegin hartuz ekiten zion beste eskuari ere. Zakila bera bost hatzen artean preso leunki masajeatuz. Esku biek batera, eta mokoa ahora. Eta berriro kanpora.

Aurpegira, aurpegian nahi dut! –esaten zidan.

Oi, horretan lehenengoz men egin nionean. Haren aurpegian semenaren tantek xendra zurixka bat markatu zuten. Ezpain ertzetik sudur luzean gora ezkerreko begia hortxe-hortxe doi saihestuz ile kiribiletaraino luzatu zena. Xendraren luzean gorago, semen tantak gero eta txikiagoak ziren. Hiru, lau, bost perlatxo zuri. Ileetan geratu zitzaizkion tantak. Irribarre egin zuen. Victoria adierazteko, ezpainetako irrian V bikoitza zebilkion dantzan. W. We won! Geu garaile!

Egunkariak esne saltzailea atxilotu zutela zekarren hartan ez zidan Aurpegira! edo halakorik esan. Hankartea nabarmen hanpaturik igarri behar zitzaidan arren.

Ezberdina izan zen etxe hartan lehenengoz sartu nintzenean. Atea ixiki baino ez, eta hormaren kontra estutu nin-

duen. Hanka bat nire hankartean sartuta. Sendo. Hanturaren bila. Hantura hantuago egitera. Praka bakeroetako botoiak askatzean eurotako bakoitzak klik egin zuen. Eta eskuetan hartu zueneko jakin nuen. Ahora eramango du. Zakila. Ez nuen espero guztia irenstea. Zakila eta esnea, esan nahi dut.

Hitz magikoa. Esnea.

Esne pittin bat?, esan zidan, kafe beltzaren inguruko ketan titiak.

Lehenengo goiza zen. Lotarako kamisoia jantzita bera, kamiseta hutsik ni. Halaxe geunden.

Bai, erantzun nion, titietako bat –ezkerrekoa zela uste dut, gogoan baitut kafea ebakitzeko egiten zuen keinuan horixe aurreratzen zuela–, diot ba titietako bat ahora hurbildu zidala. Ezta kamisoiaren tiranteak mesede egin nahi izan balit ere. Din!, klitoria airean gingil, laxo, aske, dantzari, zelan geratzen zitzaien, halaxe geratu zitzaien titiburua doi-doi nire beheko ezpainaren gainean ukitzen. Goiko ezpainaz eta mihi muturraz preso hartuta laztandu nion. Titiburua. Bustiango eta bustiango bustiz.

Nahi barik legez, eta harexen bila, eskuin eskua kamisoiaren barrenera eta gero hango ezpainetaraino eroan nuen. Ipurdiko mamietako bilo llaburrak mendixka bihurtu zitzaizkion. Gurin bustiaren bila nindoala ahurrean kili-kili egin zidaten. Ezpain handiak zabaldu nizkion, hatz lodiaz, eta gero hatz erakuslea hango gurinetan busti nuen, ezpain txikien artean, eta beste titiburura luzatu gero. Hatz gurinez bustia. Hura bustitzera. Titiburua. Eta bustita, ahora ekarri nuen. Bigarren titiburua.

Esne tanta batez kafea ebaki zuen.

Ahoa titien esklabutza hezetik askaturik, kafe ebakia-ri ekin nion.

Berak beste esne baten bila egin zuen. Makurtuz.

Kamisoia gorantz igo nion, kafe haren beroa ahoan sentitzen nuen aldi berean.

Ipurdi mamien arteko ildo, eta ipurdi mamion boro-bila, ai ene! Begien aurrean nuen ikuskizuna.

Oso ona, eta beroa, zure esnea. Halaxe esan zuen. Oso ona, eta beroa, zure esnea.

Eskuak ahoko ezpainetara luzatu nizkion. Esnea zirudien, bai. Nire zerak. Hantxe, ezpainetan, berehala lehortzen hasia. Guztiz sikatu baino lehen zabaldu egin nion. Esnea. Eskuekin igurtziz. Masailetan. Eta sudur-zuloetan tantak zituela ohartu nintzen.

Semena.

Zutitu egin zen.

Ezpainak ezpainetara eman zizkidan. Haietatik nire semenezko mintzaren pittin bat mihiaz kendurik, aho barruan sartu nion. Mihia. Eta semena. Ezpainetan geraturiko esnearen parte bat ahora itzuli nion.

Tu! egin zuen. Bere eskuetara.

Listuzko eta semenezko nahastura, soberakina, aurpegian zabaldu zuen. Berak. Bere eskuez.

Zikina izan nahi dut, esan zuen.

Halaxe joan ginen elkarrenganako konfiantza hartzen. Haragiaren automatismoei eragozpenik tartekatu barik. Etorri behar zenari etortzen utziz. Hartan korritu egin nintzen, ez nintzen korritu, ez nukeen esaten jakingo. Ez behintzat aho barruan gainez egin ostean ezpainetan behera etorri zitzaiona nondik sortua zen ez baneki, jakin banekien legez

Nik zure esnea tragatzea gustatzen zaizu?, galde egin zidan. Bigarrenez sartu zuenean. Ahoan. Esnearen iturria. Zakila. Nirea. Halaxe galdetu zidan. Nik zure esnea tragatzea gustatzen zaizu?

Bai, esan nion.

Hitz laburregia, bai!, galderak sentiarazi zidan beroa adierazteko. Laburra hitza, baina potolo irten zitzaidan. Bai. Hain potolo ze, loditu egin zitzaidan. Zakila. Bai esatean. Labur eta bero, lodi-lodi, ezpainetan estuago hartu ahal izango zuen ba. Zakila. Bai. Automatikoa.

Halako plazera sortarazten zidan, ez nuen nahi izaten korritu. Edo isuri. Esnea. Baina berak batzuetan eskatu egiten zidan. Esnea. Ahora.

Kontzientzia galtzen nuen. Noiz korritzen nintzen, korritzen nintzen ez nintzen korritzen, zenbatetan, hala-koen kontuak ez egiten ikasten nindoan. Tao hutsa.

Noizean behin zakila aluko ezpainen artean nahi izaten zuen. Eta nik eman egiten nion. Gusturago, askoz gusturago, bera txilioka hasten zelako nik barruan ezer ez eman arren. Intxaurtxoak aluko ezpainetako koltxoian, eta malguki haragizko bihurtzen ziren ezpainok. Zakila kolpeak hartzen zituen, kanaberak haizea zelán, halaxe. Malgu-malgu.

Edo bestela popaz gora jartzen zen.

Altxarazi egiten nion.

Esku batez matrailatik oratzen nion. Burua gora tenteturik izan zezan.

Besteaz gerriaren atzealdea zapaltzen nion. Uztaiago izan zedin.

Eta halaxe ematen nion. Sendo. Titiak airean eta potroak kolpeka ipurmamietan.

Kondoia erabiltzeari utzi genion.

Ez nintzen korritzen.

Bere ahoan ez bazen.

Eta hori berak eskatzen zidanean izaten zen, badiot. Ez ostera kostatu barik. Ze sexuaren Taoren teknikan aurreratuago, gaitzago egiten zitzaidan kanporantz korritzea.

Ezta haren ahora ere. Barrurantz korritzen nintzen eta. Tao hutsa hau ere.

Batzuetan eskuez astintzen nuen. Zakila. Haren ez-painen aurrean. Bai, esaten zuen. Bai. Bai. Eta korritu egi-ten nintzen. Taoren kontra egin ezean lehertu egingo nintzakeelako.

Beraz, Zelia harekin Taoren teoria hobetzen zihar-duela esan zidan. Maitek. Eta badiot. Prakek estuago egi-ten ziotenez ipurdia, bolumenaren teorian araberrako lodi-bero-labur egoeran nengoan. Alferrik. Ezta begiratu ere berak.

Hurbildu egin nintzaion. Lepoa ematen zidan arren.

Hantura ipurdi mamien artean nabaritu zezan egin nuen. Jeans estuen beroak beroago egin zidan nirea.

Honez gero ez dago ez esnerik, ezta ere gurinik, esan zidan.

Despedida hitzak ziren, bai.

Agur esneki guztiei. Gurina tartean.

Korritu egin nintzen. Dardara bakar batean. Kolpean.

Esneki guztiak esnea dira. Funtsean. Esnearen egoerak. Horixe dira esnekiak. Galtzearen, usteltzearen edo degradazioaren gradu ezberdinetara eroandako esneak. Hortixe bakoitzaren usaina.

Eguneko esnearena; usainetan lehena, eta usain esnezkoena. Egungo umeei enpagua eragiten ei die.

Esne egosiarena; esne usainetan bigarrena, eta usain esnezkoa duena baita ere. Bits bihurtzen bada, zein kafes-ne onak.

Erre egin den esnearena; hirugarrena, herdoildua, esnezkoa ez dirudiena. Norbaitek bertan behera botata utzi gaituela uste izateko usaina.

Esne galduarena; garratza, goizaldean itzarturik korro-
kada batean datorkiguna, egunen batean denok hilko ga-
rena halaxe dioena.

Gaztaiarena; usain lodia, gaztaia sendoa bada; mehea,
gaztaia arina bada. Isurkin izan dena gorputz bihur daite-
keela dioskuna.

Gatzatuarena; etxeko-etxekoa denean behiaren erra-
peko ustela dakarrena sudurretara.

Jogurtarena; kliniketako usain zuri aratza dariona.

Gurinarena; usainik gurena.

Esneki guztien usainak geratzen ziren han zehar ba-
rreiaturik. Logelan. Justizia poetikoz, gaztaia zaharrarena
galtzarbeetan geratzen zitzaigun. Azken batean zer da-eta
gaztai zaharra, izerditan dagoen esnekia baino. Eta, justi-
zia poetikoz baita ere, bere gurinari bilo arteko izerdiaren
hatsa eransten zitzaion. Eta halaxe ematen zuen urdaia
eta urinaren arteko beste zerbait.

Gaztaiaren usaina galtzarbeetan. Horixe izaten nuen
nik maiteen. Eta gero beste esneki guztien usainak gelako
zokondoetan sartu-sarturik. Orduetako izerdiarekin bate-
ra izaretan. Esnekien usainak. Hats bihurtzeko bidean ge-
lako airea lodituz. Alukoa zuen berezia. Maitek. Usaina.
Bere gurinari bilo arteko izerdiaren hatsa eransten zitzaio-
nean, badiot. Baina itzul nadin nire hantura praktetako es-
turan jarri nion momentura.

Korritu egin zara, kabroi hori!, esan zidan.

Zelia, beraz!, esan nion.

Liskarra sortzekotan geunden. Baina ez.

Zelia? Zeloak? *Les Liaisons dangereuses* filmeko hura
errepikatu behar ote dizut?, mehatxu egin zidan.

Ez zeukan errepikatu beharrik.

Filmekoa.

Argi zegoen.

Ez zuen nirekin ezer jakin nahi.

Baina ez dakit nola, errepika ziezadan probokatu nahi izan nuen. *Las amistades peligrosas* filmekoa. Merteuilgo Markesak Vermonteko bizkondeari harako hura esaten dionekoa;

«Ez dut aguantatuko inork, ezergatik ere, senarrarena eginetz zarataka hitz egin diezadan, ze, ezkontza eta ezkondu bizimodua gorrotatzen badituz, gorrotatu ere gorrotatzen ditudanaz, niri zarata egiteko eskubidea inori ematea gorrotatzen dudalako da, entzun duzu? Eta orain, alde hemendik, ez zaitut berriro ikusi nahi!».

Horixe, horixe!, filma ikusten geundela esan zidan. Zine Klubean. Ze, noizkoa zen filma?

Ez nion jaramon handirik egin filmeko elkarrizketari. Eskuineko eskua bere ezkerreko titiburuarekin jolasean nerabilen eta, bete eskuko hatz erakusleaz bide egin nuen, tanga estua albora eroanez, gurin bila. Ugari zerion eta, hiru hatzen jolasari ekin nion, leun eta astiro, ariketaz gozatuz. Suspirio batekin korritu zen. Eta ni aldi berean.

Irtendakoan markesaren hitzak errepikatu zizkidan. Zin eginarazi zidan. Ez niola inoiz senar liskarrik egingo. Baietz esan nion. Maiteri. Gona laburtzua zeroan. Maitek. Markesaren titi mardoetz gogoratu nintzen, eta hanxe loditu zitzaidan. Autoan gindoazela atera egin zidan. Ahorako. Bere ahorako. Akabatu egingo ninduela pentsatu nuen. Frantsesez orgasmoaren izena 'la petite morte' dela diote eta, zenbat heriotza txikik egiten ote duten erabateko heriotza. Egunen batean autoaren bolantea ezin maniatuz kontrola galdurik eta labarretan behera jausiz hilko ote nintzen pentsatu nuen. Baina ez. Hori baino lehen etorri zen haustura.

Les liaisons dangereuses! Beraz, ez zuen errepikatu nahi. Liskarrik ez zuela nahi. Senar portaerarik ez zuela

onartzen. Bere buruaren gainetik aginterik, inork ez! *Harrerman arriskutsuak* filmeko markesaren hitzak.

Despedituta nengoen.

Zeliagatik ala esne saltzailea atxiloturik zegoelako?

Azalpenik itzaroteko eskubiderik ez neukala pentsatu nuen. Are gutxiago neuk eskatzeko. Azalpena. Arrazoia. Abandonuarena.

Nahiago dut pentsatu esne saltzailearen kasuagatik zela. Harekikoa zelan hasi zen gogoratzen zaidan artean.

Behin jogurta paratu zidan. Zakil-mokoan. Maitek.

Zein gozo!, esan zuen, eta hura jandakoan ere xurgatzen segitu. Esneki gehiagoren bila. Lodia eta beroa atera zidan.

Handik egun batzuetara onddoak nituen. Hantxe. Eta berak ere. Hantxe bestean.

Ez da kalitatezko jogurtik egiten, esan nion.

Ez, berak.

Canestan botika horrexek erauzi zizkigun onddoak.

Mokoan ukendu hori igurtzi eta igurtzi benetako gurinik barik eman nuen tartean etorri zitzaidan. Esne saltzailearena. Kaleetan ezkutuan ibiltzen zen hura ezagutzen nuen. Basaurikoa.

Oso esne ona ei zen hark saltzen zuena. Baina zelan hurbildu harengana? Guztiz neska *post* ematen zidan. Marilyn Monroe bera. Sarezko mediak, takoiak, paparra, ile gorria. Marilyn eta bat. Beldurgarria. Eta ziur polizia gaine-gainean zebilkiona. Ze drogak legeztatu ondoko lehenengo egun haietan poliziak kalean segitzen zuen.

Presentzia erakusteko!, zioen, behin eta berriro, adarreko txorien arduradunak. Barne kontseilariak, esan nahi dut.

Eta edozeri ekiten zioten. Txoritxoek.

Adibidea. Esne saltzailea atxilotu baino aste batzuk lehenago jubilatu bi atxilotu zituzten; kirola osasunaren arriskuz –ustez!– egiten zihardutela leporatu zieten. Abusuko Parkean izan zen. Zein kiroletan ziharduten, ez zuten argitu.

Ekintza heroiko horren ostean ausartu nintzen esne saltzailea ote zen ez ote zen nengoen hari hizketan egiten. San Frantzisko kalean. Zein neska post!, benetan.

Astean litro biren tratua egin genuen.

Probatu nahi?, esan zidan, tratua itxi genuenean.

Jakina probatu nahi nuena baina, ez ote zebilen poliziarik inguruan?

Dena kontrolpean, txato; halaxe esan zidan.

Hango atari batean sartu ginen. Erraz-erraz. Bazirudien drogak legeztatu ondoren beste ezeren arriskurik ez zegoela. Inork atea ixteko premiarik behintzat ez zuen ikusten. Sasian droga-hornikari ibilitako asko lan barik zebilela egia bazen ere, ez zirudien halakoak esku armatuz lapurretak egiten hastekotan zirenik. Aurreztuak salbatzen zien bizia. Lasai ba jendea, eta atari asko zabalik. Basauriko neska *post* hura eta biok sartu ginenekoa *Art Decó* itxurakoa zen. Neskarekin ezin hobeto uztartua, beraz.

Eta halaxe izan zen. Basaurikoak bere *post* estiloko lepoko poltsatik ontziren bat aterako zuelakoan nengoelarik, titi bat erakutsi zidan. *Pop-art* estiloko koloreak zituen sujetadorearen gainaldean erakusten zuena, ene Jainkoa, hura perfekzioa! Bestea ere erakutsi zidan.

Haragia bere biribiltasun trinkoenean. Zelan eusten zien. Sujetadoreko titi-zorro bien arteko behe-uztaiak. Biei. Bien artean ipurdi mamien arteko ildoaren antzekoa osatuz. *Harreman arriskutsuak* filmeko emakume hark bezala, zelan zuen izena? Close? Titiburu bat agerian utzi zuen. Eta haragi puxika hantuen bien arteko ildo bere hartan.

Ahora eman zidan. Titiburua. Eta gero estutu berak bere esku biekin mamiak, esnea halaxe isurarazi behar balu legez. Horrek eskuak mugiarazi zizkidan.

Titiburua barrurago eta barrurago nire ahoan, berak bere eskuekin baino estuago egin nion lastan nireekin ti-tiaren haragizko inperioan.

Tanta bi, hiru tanta, beharbada lau, ez dakit zenbat isuri zidan. Ahora. Dakidana da plazera infinitua izan zela.

Astean bi litro izan zen tratua, eta bat bi hiru lau tanta esne izan zen nire dieta. Titiburuetatik zuzenean. Homeopatia hutsa. Zein ondo hasi nintzen sentitzen. Maitek berriz bi litro haiekin denetariko esnekiak egiten zituen. Kefir egitea debekatu nion. Goragalea ematen dit horrelakorik ikuste hutsak.

Esnekiak etxean egiteari ekin zion. Maitek. Basauriko esneaz. Basa esnekiak, zioen berak.

Jogurta paratzen zidan mokoan. Gatzatua ipintzen nion titiburuetan. Sudur muturrean esne epela isurtzen zidan. Gurina egiten nion ezpainetan. Gure konplexutasun osoa ikasten jardun genuen.

Klitoriaren inguruko habia, eta klitoria bera txoria!, hitzokin, halaxe erakutsi zidan hura leun lastantzen. Gurin tanta batekin.

Basauriko esneaz, basa gurina!

Zeliak hobeto egiten ziolakoan nago. Baina denborak nahasten ari naiz. Zeliak hobeto egiten diolakoan nago. Eta esne-saltzaileak hobeto egiten ziolakoan nago. Ze harekin ere egiten izan du, ziur.

Behin esan nion; zoaz zu, prolemarik ez.

Ezin nuelako neuk joan.

Ez ote zion niri bezala neska *post* hark tantaren bat
ahora eman, biloen arteko habian txoria lastandu, gurina
xurgatu, hori dena egin?

Harrez gero behin baino gehiagotan esan zidan.

Zuk zeuk ezin baduzu neu joango naiz. Esnearen bila.

Eta gero Zelia.

Hiru gaztaina! Eta nire intxaurtxoak hortxe zimel-
tzen.

Alde egin nuen. Zelan zakurrak buztana hanka arte-
an, nik neuk ere halaxe.

Eroan hau, esan zidan atean nengoela.

Paperak ziren. Mordoa. Plastikozko karpeta horieta-
koan sartuta. Titulu moduko bat zeukaten. Gaineko plas-
tikoan handi idatzita: Basa Gurina.

Eskua urduri jartzen zaizunerako, esan zidan.

Edorta Jimenez. 2006ko urria.

*Ozeanoan Arregi
kapitainarekin*

JON AIASTUI

JON AIASTUI Oñatin jaio zen 1971ean. Filosofia ikasi zuen EHU-n. Poesia liburu bat du argitaratuta, *Biolinaren jatorria* (Elkar, 2004).

Arregi kapitainak ezetz esan zuen buruaz, eta berehala Carusok «Go-go-go! Go-go-go!» errepikatzeari ekin zion, burua tente, hegalak astindu gabe.

—La! Go-la! —oihukatu zion kapitainak, silaba bakoitzarekin besoa jaitsiz, altxatuz eta jaitsiz.

Caruso isildu egin zen. Kapitainak esku biak bildu zituen bizkarrera eta oinekin sei berme-puntu bilatu eta aurkitu zituen. Gero hiru emakumeengana zuzendu zen berriz.

—Ezin denean ezin da. Ez al duzue hori ulertzen?

—Mesedez, kapitaina —eskatu zion Dorothyk—. Txokolata apur bat baino ez dugu nahi. Ontziko lema ez gabiltza, gero, eskatzen.

Kapitainak ez zuen inolako keinurik egin.

—Lema utziko nizueke gustura —erantzun zuen—, ahal banu. Daukadan guztia emango nizueke, ahal banu. Ema-

kume zoragarriak zarete hirurak. Baina ezin dizuet txokolatea eman.

Dorothy, urrats bakar batez, kapitainaren eremuan sartu zen. Biek naturaltasuna antzeztu zuten. Kapitainak giltza sartu zuen poltsikoan; Dorothyk irri egin zion.

—Esan dizuet txokolate tableta hori gure esperantza bakarra dela. Ez dakigu nolakoak diren irla horretako jendeak. Nork daki zer lor dezakegun txokolate horren truke?

—Txokolate gehiago, beharbada? —galdetu zuen inozentziaz Debbiek.

Debbie eta Marcie ababorreko atearen aurrean zeuden, beso gurutzaturik.

—Hartu —esan zion kapitainak Dorothyri, haren esku bat lemaren zurean jarriz—. Ipini eskuak hemen... eta hemen, eta eutsi norabide horri.

Marinelak Marcieri eta Debbiek so egin zien neska-
ren bizkarretik, baina Dorothyri zuzendu zizkion hitzak:

—Berehala etorriko naiz. Defendatzeko zerbaiten bila noa.

Arregi kapitaina Debbiek eta Marciek trabatzen ez zuten atetik irten zen.

Kapitainak armairua zabaldu zuen. Esekitako arropen ostean taula txiki bat separatu zuen eta kartoizko kaxa bat atera zuen zulotik. Ez zen eseri. Alkandora altxatuta, errebolberra gerrikoaren azpitik atera zuen. Gero lehengo tokian utzi zuen dena, balak salbu.

Lemara itzuli zenean, Debbie eta Marcie brankan zeuden eguzkia hartzen eta irakurtzen. Dorothyk esku biak zituen leman, eta bat eramane zuen ahora, Marcieri esateko:

—Aizan, ipurdi handi! Kendu oraintxe bertan kurba horiek nire paretik, ez baitut etorkizuna garbi ikusten!

—Kaixo —esan zion kapitainak.

—Arratsalde on, kapitaina.

Dorothyk libre zeukan besoa luzatu zuen baso bat hartzeko.

—Hau beroa —esan zuen.

Edan zuen, kendu zuen beste eskua lematik, nikia erantzi zuen eta eguzkia hartzera joan zen.

Kapitainak lematik mugitu gabe deitu zien:

—Aizue, neskak, lurrera jaitsi beharko dugu ordu erdi barru.

Loroak ere zegoen lekutik hitz egin zuen:

—Go-go-go! Lago-go-go!

Dorothyk burua jaso zuen, Marcie ukondoetan bermatu zen eta Debbie jaiki egin zen. Inguruetan zituzten arropak jaso, bildu, jantzi, eta pilotu kabinaren ondotik pasatu ziren, ganbararantz.

—Hik zer diok? —galdetu zion kapitainak loroari—. Iritsiko gaittuk, bai ala bai?

Loroak begiratu egin zion. Gero burua mugitu zuen, kapitainak bezala.

Hondartza ez zen infinitua. Oihanak hiru aldetatik mugatzen zuen. Kapitainak plastikozko bidoia utzi zuen bere besoa bien artean flotatzen, eta igeri eginez hondartzarantz eraman zuen baloia bezala. Zutik jarri zen. Gerri-raino zeukan ura. Itsasontzira begiratu zuen. Ez zituen emakumeak ikusi.

Besoa altxatu zuen, esku ahurra eta bost hatzak ontziko ei erakutsiz. Gero bidoiari heldu zion eta lurrerantz ibiltzen hasi zen. Bidean, bidoiari tapakia kendu eta pistola ukitu zuen zapiaren azpian. Txokolatearen usaina, istant batez, ahoan zeukan kresal usainaren gainetik nabaritu zen. Uhinak heltzen diren tokira iritsi zen. Hondarra irakiten zegoen, baina urak freskatzen zizkion oinak.

—Hauxe zen orduan paradisia —esan zuen bere baitan.

Gero barkurantz so egin zuen. Ondoren, bidoia besapean hartuta, oihaneraino egin zituen berrogei pausu zuen.

—Marcie —galdetu zuen Debbiek—, ezer ikusten al dun?

Marciek ez zituen prismatikoak kendu.

—Ez dun urrutira sartu. Iturriren bat topatu guran dabil.

Pilotuaren kabinatik ostiko hotsak iritsi ziren.

Marciek prismatikoak kendu zituen begietatik. Begiradaz lehengo puntua zaintzen segitu zuen, Debbiek esan zuen arte:

—Hori Dorothy izan da.

—Goazen —esan zuen Marciek.

Ganbaratik makurtuta irten ziren eta hala joan ziren pilotu kabinaraino. Dorothy belauniko jarrita zegoen, hondartzarantz begira.

—Zerbait entzun dut —esan zien marmarka.

Arregi kapitaina bidoia buru gainean zekarrela agertu zen hondartzan.

Dorothyk martxan jarri zuen motorra.

—Eskerrak —esan zuen Debbiek.

—Merezi ditu —gehitu zion Marciek, eta zutitu egin zen.

Dorothyk motorraren giltza ukitzen segitu zuen. Beste giltza bat bilatu zuen hatz puntez, baina ez zegoen.

Kapitainak, ura gerriraino izan zuenean, bidoia flotatzen utzi zuen. Ez zen behera joan. Uretik atera zuen beso biez eta ahal bezain urrun jaurti zuen. Besakada luzez bi-

doiraino heldu zen gero, eta water-polo jokalaria baten gisa ontzirantz bultzatzen segitu zuen.

—Bizirik dator! —esan zuen Dorothyk, lurretik jaikiz bat—. Bizirik dator!

Arregi kapitainak ontzikoei hurbildu zien bidoia, azpitik jasota. Marciek eta Debbiek ontzira jaso zuten.

—Pistola busti al zaio? —galdetu zuen Debbiek, tapakia kenduz.

Kapitaina lau mugimendutan *New England*-eko bizkarrean zen, gerriak tente.

—Beste nonbait saiatu behar —informatu zuen—. Frui-tuak topatu ditut, baina oso irla txikia da. Antzinako arrasto batzuk topatu ditut, baita: ez du ematen inor bizi denik.

—Antzinako arrastoak!? —galdetu zuten hiru emakumeek batera—. Zein arrasto?

—Pipa bat eta kristalak.

Bik barre egin zuten, eta Marciek beste galdera bat egiteko aprobe txatu zuen arnasa.

—Goazen ikustera, ezta? —proposatu zuen.

—Pipa hartzera noa —esan zuen marinela—. Caruso, bilatu sua!

—Ar! —erantzun zion Carusok.

Carusok ezkerrera eta eskuinera mugitzen zuen burua.

Emakume batek hitz egiten zuenean, ezkerrera

Eta Arregi kapitaina mintzo zenean, eskuinera.

Dorothyk kantu bat irakatsia zion bi astean; Debbiek esaldi bat; eta Marciek, berriz, dutxako gortina ixten eta toalla txiki bat ekartzen.

—Nik uste dut etziko jana bihar ere jan dezakegula —zioen Marciek.

—Marcie McHenderson —esan zion Arregi kapitainak, bere emazte irlandarra zena gogoratuz—. Orain berdin dio ahaideak garen ala ez. Azken finean kolorezko tximinoak gara.

—Ar!

Marciek Carusoren begietan ipini zituen begiak, gero lurrean, gero kapitainaren sexuan eta gero kapitainaren begietan.

—Dugunarekin ez gara porturaino iristen —gehitu zuen kapitainak.

Loroa hegazka igo zen eta irteera bilatu zuen leihotik. Kristalaren kontra jo zuen.

Debbie laguntzera joan zitzaion. Eskuetan habia egin zion, eta txoria, pentsatu gabe, habiara sartu zen.

—Entzun —esan zuen Arregi kapitainak—. Giltza hori ez badidazu ematen, tableta osoa jango dut zeuen aurrean, oraintxe bertan. Ez dut bi aldiz esango.

Hiru emakumeek elkarri begiratu zioten. Baietz egin zuten bekainez hiru aldiz.

Marciek Dorothyren beheko bikini urdinaren loki bat ukitu zuen.

—Ez —erantzun zuen irmo Dorothyk.

Ondoren Marcieri eman zion giltza. Hark aldaka bateko lokia askatu zion, eta *My way* txistukatzen hasi zen. Lokia giltzaren zulotik sartu, hiru korapilo egin, eta giltza Dorothyren aldakaren kontra geratu zen lotuta.

Arregi kapitainak txokolatearen estalkia ukitu zuen.

—Mesedez, ez —esan zuen Marciek.

Kapitainak ez zituen begiak tabletatik kendu. Aluminioko geruza lau aldeetatik zabaldu zionean, Debbiek ezpainak barrutik ausiki zituen eta eskuak elkartu. Kapitainak lehen mokadua egin arte itxoin zuen, begiak ken-

du gabe, eta txokolatea kapitainaren eztarri hondoan zegoenean, harekin batera esan zuen:

—Mmmmmm...

Dorothy nikia erazten hasi zen.

—Berdin dio –esan zuen, burua nikiaz estalita zuela; hiru hirukiz jantzita geratu zenean, hitz batzuk gehitu zizkion mugimenduari—. Guk jan, berak jan: kontua da norbaitek gidatu beharko duela itsasontzi hau.

Nikia bazter batera jaurti zuen eta irten egin zen.

Dorothy joan zenean, Debbiek kapitaina seinalatu zuen okotzaz.

—Kapitain jenerala! –agindu zion militarki—. Ahoa itxi! Ar!

Kapitainaren lotsa eta ondorengo haserrealdi barneratua aprobetxatu zuen haren pareraino joateko eta eskuaz ezpain ertza ukitzeko.

—Txokolatea duzu hemen.

Hatz puntaz kendu zion papurra eta, kapitainak bakarrik ikusi ahal zuen begi keinu bat egin ondoren, hatza eraman zuen ahora. Gero hiru bat segundoz itxi zituen begiak.

Kapitaina 140^o jiratu zen iparrerantz. Leihatilatik kanpora begiratu zuen. Ahoan zeukan pusketatzarra amaitu zuenean, hurrengo pusketaren bila bueltatu zen. Baina ordurako tableta erdia Debbieren eskuetan zegoen.

Marciek sei pusketara egin zituen Niloko labanaz. Debbiek bat jan zuen, eta zegokion bestea hartuta jaiki egin zen.

—Marcie, eraman hauek pilotuari –esan zion.

Marciek esku batean hartu zuen labana eta bestean platera. Debbiek itsasontzi guztian entzuteko moduan gehitu zuen:

—Nik zerbait daukat kapitainarentzat.

Txokolate pusketa haginaren artean ipini zuen. Kapitainak ohartu nahi izan zuenerako, txokolatea bere ahoaren barruan zegoen Debbieren mingain prodijiosoarekin batera.

Debbie pilotu kabinara itzuli zen. Itsasontzia edozein lurretatik urrun zegoen.

—Horixe behar zuen —esan zuen oin puntuen gainean barandarantz hurbilduz, eskuan goiko bikini gorria zeramala.

Barandatik begiratu zuen ortzemugara. Ondoren, besoa altxatu eta ozeanoari eman zion oihala. Besoa jaitsi zuen eta aurrean zuen gauza bakarrari begiratu zion berriz ere. Gero Dorothy eta Marcierengana jiratu zituen gerririk, eta haiei begira geratu zen barandatik.